

# Adimen-gaitasun handia ezkutuan



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR

**I**kasturte honetan adimen-gaitasun handiko ikasleei begirako plan berria ipini behar du martxan Eusko Jaurlaritzak. Lehenbiziko ardura: ume horiek zeintzuk diren atzeman; prentsaurrekoan ere azaldu zenez, askok ezkutatu egiten dutelako, bereziki neskek.

**Premiak.** Gaitasun handiko umeek, zoriontsuak izateko, onarpena eta maitasuna baino ez dute behar, ume guztiek bezala. Eta estimulu intelektualak, anitzak eta ezberdinak. Nagusitan ere zaila da interesa gauza bakar batean zentratzea, munduan hainbat erronka berri zain daudela jakinda. Eta, azkenik, eta ez da kontu makala, tratu justua; min handiz sufritzen dituzte bidegabekeriak, oso garaturik duten justizia sena dela eta.

**Taldea.** Goizetik konturatzen dira gaitasun handiko umeak ezberdinak direla. Ez dira apartekoak. Ezberdinak baizik. Eta arraro sentitzen hasten dira. Beste umeek ez diete ulertzen eta eurek ere ezin dute ulertu zelan den posible beste umeek ez ulertzea. Ezberdintasun hori galga bihurtzen da harreman sozialerako, umeek, azken batez, taldekide sentitu nahi dutelako, behar dutelako.

**Bakardadea.** Ez lagunik egiteko gai ez direlako. Zerbait sakonagoa da. Ingarunera guztiz doitzen ez zarelako sen-

tsazio modukoa. Gainera, zeure buruaren konpainian egotea gustuko duzu, zeure burua lagunik onena –eta, aldi berean, etsairik ankerrena– baita.

**Beldurra.** Zugandik hainbeste espero duzu, perfekzio eskakizuna hain da altua, ezen huts egiteko posibilitate hutsak guztiz beldurtzen baitzaitu. Beldurra, nagusiak zure sekretuaren jakitun inoiz izango ote diren. Zer esperoko lukete zugandik orduan? Ze presio erantsi ekarriko lizuke horrek? Hainbat mito daukazu entzunda harrezkero halako umeen inguruan eta ez duzu bitxikeria bihurtu nahi. Adimen-gaitasuna mitologiaren hustea, normaltzea eta umeen harrotasuna harropuzkeriarekin ez nahastea gakoak direlakoan nago.

**Frustrazioa.** Zure baliorik handientzat daukazu hori ingurukoek ez ikusteaz gain, genero estereotipoz blai, gutxiagotzen zaituztenean. Eta zure generoari dagokion “umiltasun” agindua- ren kontra borroka egiteko ezintasuna igartzen duzunean.

Inteligentziari euskaraz “argitasuna” ere esaten zaio, gauzak argiago ikusteko gaitasuna delako funtsean, harago ikusteko ahalmena. Nire lako miope guztiek ulertuko duten simul bat ipintzearen: mundua antiojoak jantzita ikustea lako

da. Argiago, definituago, errazago. Ez da aparteko ezer eta ez zaitu hobe egiten.

Harritzen nau zelan batezbesteko koiziente intelektuala daukaten zenbaitek mespretxatzen dituzten ausazko neurri horretara heltzen ez direnak, denok, eta eurak ere, hainbat kontura heltzen ez garelako kargutu barik. Zer-nolako pertsonak garen ez du numero batek adierazten, besteak tratatzeko moduak baino.

Harritzen nau telebistako aurkezle bat MENSAn (Inteligentzia Koiziente Altuko Pertsonen Erakundea) dagoela errepikatzen digutenean. “Hautatuen” artean egotea merezi ote duzun erabakitze test hori ez da horren zaila; egia esan, dibertigarria da, umetan halakoak egiten orduak ematen nituenean bezain dibertigarria.

Harritzen nau apaltasun eta modestiarako agindu soziala ze barruraino sartuta daukadan. Bere gaitasunez lotsatzen ez den morroi horren jokabideak gogaitzen nau, nahiz eta jakin pentsaera hau aurretiaz esandakoaren guztiz kontra datorrela.

Hau guztia hitzetara pasatu dudan lehen aldia da eta, konfesiok egin ostean, ez dakit leunago eta pisu gutxiagorekin sentitzen ote naizen edo lotsak guztiz gainezkatuta. Eta honek ere harritzen nau. ●



ANTTON OLARIAGA